

# Norbert Tauer

6 u l *QUSKQT3,*

Il-barri jaku oindifio urrineko euskal idazle jator bat: Norbert Tauer. Azken eskutitza zor neutsola joan da Jainkoaren altzora; on-ona zan-eta, betiereko zoriontasunera, jakifia. Grain esku mende daukadan tarjetatxoan onela inostan: «Aita guztiz agurgarria ta adiskide ona: Zure aldetik bidalita «KAR-MEL» izeneko aldizkari ederraren aurtengo lehen zenbakia (1977'koa) atzo hartu nuen Orain irakurtzen ari naizenean zuk egindako artikulu jakingarri bat, «Eusko Olerkiak gaur» izena duena, begietara datorkit. Zutaz oroitzen naiz eta aldizkari bikain honengatik nire eskerrik hoberenak ematen dizkizut. Zuri eskerrak euskarazko gauza asko hartzen dut eta zure zordun haundia gelditzen naiz... Besterik gabe, bar itzazu, adiskide ona, nire itzal handiko goraintziak».

Urteak dirala «Milla Euskal Olerki Eder» (1954) argitaratu nebanetik adiskide miiiak izan gara. Kartak idazten-eta ni baifio zoliagoa izan da beti, eta 50 bat izango ditut emen berak idatziak. Gizon jakituna. Txekoslovakia'ko Pilsen'en jaioa 1898-6-6'an, eta Praga'ko Udaletxean, bertako' arazoetan jarduna urte askotan. Euskal idazle ugaria; nok eskutitz geiago idatziko konkurtsuetan sei bider beintzat berak jaso eban lenengo saria. «Euzko-Gogoa'-n, «Zeruko Argia»-n, Pariseko «Euzko-Deya»n, «OIerti»-n eta abar idatzi eban.

Zelan biurtu zan euskaltzale? Eta zelan ikasi eban euskeraz? Ona berak: «Ogei urtedun gazte bat izanik, Euskalerrira

leenengoz etorri nintzan ta euskal abenda garbi ta sendoa, inguratzeko duten errietako abendekin zer ikusirik ez duena, baita ere Euskalerriaren oitura jatorrak eta kanta ederrak txoratu naute. Abenda arrigarri onen izkuntza ederra ikasteko asmoa arturik, Baionako liburutegi batean euskerazko liburu batzuek, oien artean Kanpion'ek idatzitako euskal-iztia, erosi nitun. Eta etxeratu ondoren, kemen aundiarekin ikasten eta euskerazko liburu berriak erosten asi nintzan. Orain nere eusko-liburutegian eundaka zenbaki daukadaz». Liburutegi au Euskaltzaindiari itxi eutson il aurretxoan.

Errez, garbi ta txukun idaztera eldu zan, bere lanak erakusten dauskuenez. Ez, etzan miifiezko maitasuna bakarrik. Ainbat Ian eder agertzen dira gure aldizkarietan euskeraganako grina ta berotasunez gainezka. Geu baino be geiago kezkatzen zan gure izkuntzaz. Berriro difiot: guk asko zor dautsogu Tauer'i, eta bere eriotzaz ez dogu gitxi galdu; euskaltzale on eta euskal idazle zintzo bat noski. Beraz, zor ortatik nik be zerbait ordaindu nairik, nik ari neutson maitasunaren lekuko lez, oraintsu Baiona'ko «Gure Herria» arakatzean aurkituriko aren artikulua eder au dakartzuet «KARMEL»-en orrialdeetara.

Gure izkuntzaren il edo biziko gorabera ta istilluz ondo jabetua bizi zan ezkeron, 1951'an gero, «Arrotz eskualzale baten deia» deritxon lana idatzi eban. «Ez da ukatzekoa —difio—, euskera berpiztutzea eta. Euskadi osoa euskalduntzea Ian guzietatik bear-bearrekoa da. Guziei agiri da, euskera beera dijoala. Eta euskera laster ilko da euskotarrak beren ele ederra gaurko egoera illunean utziko badute eta ez dituzte beren indar eta azandi guziak eskeinduko, euskera dela Eusko-Abendaren zaingia argiena eta euskeraren galtzea izango da Euzkadi' ren ondamendia ere. Euskera iges egin ezkeron, joango dira betiko Euskalerriaren oitura garbi ta jatorrak, abesti zoragarriak, zuen asaben siniste bizkorra, itz batez, euzkotarren izaki berezia, eta euskera gabeko Euzkadi ez da Euzkadi izango, Enbeita'tar Kepa'k ongi esaten duen bezela:

«Eguzkiaren argia gabe  
ezerk eztaunez bizirik,  
gure euskera zar maite barik be  
ezta euzkotar erririk».

Eta au gogoan badaukagu, ez da arritzekoa, Euskalerrri'ko gizon ospetsuak euskerarako zaletasun sutsua agertu eta arreta aundiarekin euskeraren aide idatzi dutela. Aipatuko degu bakkarik Etxepare'tar Benat'en euskeraren omenezko neurtitz ezagunak eta Kardaberaz'tar Agustin'en esan ederrak: «Euskerak burua jasotzea, Jaungoikoak nai du». Ederki etiskeraz itzegiten du izen andiko idazle ta izlari zen Agirre'tar Txomin'ek esanaz: «O euskera maitagarria, zuri nai dizut eresi. Oso aurtxoa ninzala, oraindik seaskatxoan negoala, Ama Iaztanaren aoz sartu zinan nere biotzean, ta ordutik nere biotzean zauz"kat». Eta Etxegarai'tar Karmel'ek bein batean ederki idatzi du: «Maite degu euskera, zarra delako, ederra delako, gure mendien usain gozoz usaindua datorrela, eta batik-bat gure-gurea delako». Eta Arana-Goiri'tar Sabin illezkorraren euskeraren aldeko lana guziei ongi ezaguna dela uste det. Eta gizon oiek guziak bere euskeraranganako maitatasuna ez ezik itzez, baita ere eginez erakutsi dute.

«Gaurko egunetan aldizkingi abertzale guzietan etengabe irakurtzen degu euskera bizkortzeko Ian egitea euzkotarren eginbear nagusia dela. Eta gauza onetan abertzale zintzoak bat datozela ziUr nago. Arlo ontzaz asko idatzi ta itzegiten da, bafian barkatu, arren, atzerritar baten iritzia-itzaldi ta irakurgai guziak itz utsak gelditu dira. Euskeraren alde idazten duten aldizkingiak ez dute berak beren itzak betetzen eta ikusten degu aldizkingi abertzale aietan irakurgai geienak erderazkoak dirala. Onela jarraituz, euzkotarrak ez dute inoiz beren elea ikasiko eta euskeraren aldeko Ian guzia alperra egongo da.

«Euskeraren egoera illun au ikusirik, asmoa artu det dei bero bat Eusko-Ikaskuntza'ren lagun guziei zuzentzeko, beren indar guziak euskeraren pizkundeari eskeindu dizazkioten. Euskaltzaleak bagera, euskerari laguntzera etorri bearrean gagoz.

«Orregatik galtzorian dagoen euskera bear bezelako ardu-raz begiratu bear degu eta ekin atsedetik gabe, euskera euzkotar guzien izkuntza egiilarte.

«Nere ustez, euskeraren batasuna lenengo baldintza da

euskera piztutzeko. Guziek dakigu izkelgiak euskal irakurleei ipintzen dieten muga, gauza beltza dela. Europa'ko abenden artean, Euzkadi da bakarra, oraiarte izkuntza elertun edo literarioa ez duena eta izkuntza elertun au eraltzea Eusko-Ikaskuntza'ren eginbear nagusia izan bear da. Jadanik Ofiati'ko Biltzar nagusian euskeraren batasunaz itzegin da, eta euskaltzale ta idazle opsetsua zan Elizalde'tar Koldobika'k itzaldi eder ta raamitsu bat euskeraren batasunaren bearrez egin du. Banan urteak joan, urteak etorri, eta euskeraren ez-batasuna euskeraren kaltez gelditzen da len bezela. Eta egoera au urte batzuen buruan euskeraren ondamendia izango da. Euskaldunak berak beren elearen ondaleak izanik.

«Banan nola ele elertuna eralduko degu? Galdegiten dute euskaldun askok. Au euskaldun jakintsuen lana izango da. Nere ustez, Euzkadi'ko biotzean dagoen gipuzkera artu bear da euskera elertunaren onarritzat eta izkelgi bakoitzetik zerbait daukana. Euskaldun guzien jabetasuna izango da eta euskaldun guziak maitatuko dute mintzo au. Ele elertun berri au ez da izkelgien eriotza egingo, befiere ez. Euskeraren izkelgi eder ta jatorrak biziko dira orainarte euskaldunen etxeetan eta baserrien izkera mamia geldituko dira, beste errietan ikusten degun bezela.

«Ez da ukatzea, Ian au ez dela erreza, banan egin dezakena da. Euskera zaindu nai badegu, ez da beste biderik. Europa'ko toki batzuetan, euskera Euzkadi'n bafio egoera txarragoan zeuden beren izkerak piztu dituzte. Abenda txiki bat, euzkotarren abenda bezela, ez dezake sei edo geiago izkelgitan bere liburuak argitaratu, bafian bearrean dago batasuna iritxi eta euskera ele elertun bakarraren bidez bizkortu. Euskeraren batasuna garrantzi aundi-aundikoa izango da elertia edo literatura indartzeko. Eta elerti bikafiaren jabe badegu, euskeraren bizia gaizkatuta izango da. Eta ele bakar onetan idatzitako liburuak irakurriko ditzakete. Aufiamendiko bi aldeko euskaldunak, eta ele bakar au kemen aundia izango da euskojakintza edo kultura aberri guzian edatzeko.

«Eta Euzkadi euskeralduta, euzkotar guzien elburu nagusia izan bear da. Au eskatzen dizkizute zuen odolak, zuen edestiak eta zuen gurasoenganako maitetasunak

«Zinez nai badezute, euskera gaizkatuko dezute. Euskalduna bazera, utzi zazu euskerarenganako zabarkeria, eta erabili zazu beti eta leku guzietan zure abendaren izkuntza bakarra den euskera.

«Euskera ez dakien euzkotarra bazera, ar zazu euskera zure eletzat, eta euskaldun adiskideen laguntzaz alegin guziak egin zazu aure abendaren elea ikasteko. Eta asmo au beteaz, urte batzuen buruan, euskera euzkotar guzien ele bakarra izango da.

«Lerro oiek bukatuaz, dei egiten det: Gora gure Euzkadi raaitea! Gora euskera! Gora Txekoslabakia ta Euzkadi'ren arteko adizkidetasun zintzoa!» (Gure Herria, 195.1, 241 orrialdean).

Ona emen atzerritar bat geu baino be geiago gure euskeraz arduratzen dana. Ikasbide ederra emoten dausku. Berak dinoskunik zer-edo-zer onartuko ete dogu?